

gutunzuria

BILBOKO LETREN
NAZIOARTEKO JAIALDIA

FESTIVAL INTERNACIONAL DE
LAS LETRAS DE BILBAO

BILBAO INTERNATIONAL
LITERATURE FESTIVAL

Gaur gauean suak
nire liburutegia
erreko balu

ARTEA KONTATZEKO
ARTEA

2019 **2 > 6** APIRILA

azkunazentroa.eus

AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO

Bilbao

INSTITUT
FRANÇAIS

SMART
PLACES

Co-funded by the
Creative Europe Programme
of the European Union



**GUTUN ZURIA. BILBOKO
LETREN NAZIOARTEKO
JAIALDIA**

Antolatzailea:

Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao

Aholkulariak:

Iñaki Esteban, Iván de la Nuez, Beñat
Sarasola

Parte hartzaileak:

Oskar Alegria

Bernardo Atxaga

Harkaitz Cano

Editorial consonni

Sheila Cremaschi

Beatriz Chivite

Eric Dicharry

Agustín Fernández Mallo

Carlos Fonseca

Joan Fontcuberta

FormArte

Xabier Gantzarain

Verónica Gerber Bicecci

Asociación de Escritores de Euskadi

Euskal Idazleen Elkarte

Alicia Kopf

Rafael Lechowski

Maialen Lujambio

Cristina de Middel

Valérie Mréjen

Luis Posada

Ricard Robles

Julián Rodríguez

Christina Roseninge

María Eugenia Salaverri

Alicia San Juan

Danele Sarriugarte

Juan Vico

Enrique Vila-Matas

Editorial independenteak: Pepitas

de Calabaza (Logroño), Hoja de

Lata (Xixón), Rayo Verde (Bartzelona),

Periférica (Madril), Sans Soleil

(Gasteiz), Capitán Swing

(Madril), Arcadia (Bartzelona), Errata

Naturae (Madril), Astiberri (Bilbo),

Katakarak / Txalaparta (Iruñea), Chan da

Polvora (Santiago de Compostela),

Continta me tienes (Madril) y

consonni (Bilbo).

www.azkunazentroa.eus

info@azkunazentroa.eus

944 014 014

**PLAZA ARRIQUIBAR, 4
48010 BILBAO**

Lege gordailua BI-407-2019

© 2019. Centro Azkuna de Ocio y Cultura SA

Gutun Zuria: liburu-etako orrien mugak gainditzen dituzten hitzak

Bilboko Letren Nazioarteko Jaialdia erreferentea da literatura garaikidearekin interesatuta daudenentzat. Urtero, ehunka lagunek hartzen dute parte Gutun Zuria jaialdian, desirak eta itxaropenak haiekin partekatuko dituzten sortzaileak ezagutzeko.

Edizio honetan, hitzak liburu-etako orrien mugak gainditu, eta harremanetan jartzen da gainerako diziplina artistikoekin. Arteak dituen aukera narratiboak erakutsiko dizkiguten tailerrak, eta hitza eta musika bateratzen dituzten hitzaldi eta errezitaldiak eginez, argitaletxeen elkargune gisa edo erakusketa bateko piezak erabiliz.

Esperientzia horiek artistekin dugun konplizitatearen emaitza dira, eta balio eta aberastasun gehiago ematen dizkiote hitzordu honi; gonbit egiten dizuegu, literatura erdigunean jarrita, partekatuzera, hitz egitera, eztabaidatzera, ikastera eta aztarna uztera.

Aurtengo jaialdiaren titulua da *Gaur gauean suak nire liburutegia erreko balu. Artea kontatzeko artea*. Lehen zatiak Aldous Huxleyren saiakera du abiaburu, idazleak argudiatu baitzuen liburutegi bat erretzea ekintza krudela baina alferrikakoa dela, liburuak berriz irakurri eta eduki ahal direlako.

Bigarren zatiak, berriz, José Lezama Lima poetak ahozko arteari buruz idatzitako testu bat du aipagai.

Izan ere, literaturak irakurleak behar ditu. Irudi bisualen apoteosiak, urtu beharrean, literaturaren biziraupena indartzen du.



Gutun Zuria lotuta dago jaialdiaren atariko izango den *Inoiz ez erreala / Beti egiazkoa* erakusketarekin. Martxoaren 14tik irailaren 22ra arte egongo da ikusgai Erakusketa Aretoan, saiakeragilea, kritikaria eta jaialdiaren

aholkularietako bat den Iván de la Nuez komisarioaren eskutik, Azkuna Zentroko taldearen eta Iñaki Esteban eta Beñat Sarasolaren laguntzaz.

Azkuna Zentroak etapa berri bati ekin dio, Gizarte eta Kultura Garaikideko Zentro gisa, orain arte egin den guztia gehiago balioesteko, kultura-programazio hedatu baten bidez, formatu berriak erabiliz eta era guztietako ikus-entzuleen komunitateak aintzat hartuta. Ahalegina egiten ari gara optimizatzen eta programazioko esparru desberdinak harremanetan jartzen, garaikidetasunaren egunerokotasunari bide emateko. Horixe da Gutun Zuriaren kasua.


Jaialdia harremanetan dago Zentroko gainerako programazioarekin, hizkuntzak eta diziplinak zeharkatu, praktika artistikoaren bidez lotu, eta sorkuntza jartzen baitu erdigunean, forma ugari erabiliz, eta era askotako ikus-entzulerengana iristeko asmoz.

Gutun Zuriak berriaz nabarmentzen du hitzak ardatz artistiko garaikide gisa duen balioa, eta jaialdi irekia eta luzatua da orain, gai, formatu eta entzuleria aldetik.



BILBOKO LETREN
NAZIOARTEKO JAIALDIA | FESTIVAL INTERNACIONAL DE
LAS LETRAS DE BILBAO | BILBAO INTERNATIONAL
LITERATURE FESTIVAL

gutunzuria



Gaur gauean suak nire liburutegia erreko balu

Artea kontatzeko artea

Apirilaren 2tik 6ra bitartean, [Gutun Zuria](#), [Bilboko Letren Nazioarteko Jaialdiaren](#) edizio berria izango da Azkuna Zentroan.

Hitzordua berritu egin da ikus-entzule eta formatu berrietara zabaltzeko. Nazioarteko eta hemengo idazleekin elkarriketak egiteaz gain, jardueraz betetako programa publikoa osatu da, Gutun Zuria hizkuntza berriak sortzera eta hedatzera zabaldutako literatura-jaialdia da-eta.

Hitzak forma hartzen du praktika artistikoen, musikaren, ikus-entzunezkoen eta hezkuntzaren bidez. Artisten tailerrek, arteak dituen aukera narratiboak zein diren ikus-entzule askotarikoei jakinarazteko; musikaren eta beste praktika artistiko batzuen artean zubiak eraikitzen dituzten jarduerekin; argitalpen independentearen inguruko eta euskal literatura-ekoizpeneko agenteen topaketekin, euskarazko narratiba sorkuntzaren beste alderdi batzuetara nola hedatu den jorratuko duten elkarriketa eta mahai-inguruekin... Esperientzia artistiko horiek diziplina desberdinetako artistekin dugun konplizitatearen emaitza dira, eta balio eta aberastasun gehiago ematen dizkiote hitzordu honi; gonbit egiten dizuegu, literatura erdigunean jarrita, partekatuz, hitz egitera, eztabaidatzera, ikastera eta aztarna uztera.

Gutun Zuriak Alhóndiga Bilbaoko espazio osoa hartuko da: Auditorioa eta Mediateka, Ataria eta Lantegia, hau da, sorkuntza eta berrikuntza kulturalako espazio berria, goizeko, arratsaldeko eta gaueko programazioarekin.

Hori guztia inplizituki agertzen da Gutun Zuriaren edizio honetako tituluari: [Gaur gauean suak nire liburutegia erreko balu](#).

[Artea kontatzeko artea](#). Lehen zatiak Aldous Huxleyren saiakera du abiaburu, Huxleyk argudiatu baitzuen liburutegi bat erretzea alferrikako ekintza dela, liburuak berriz irakurri eta eduki ahal direlako. Bigarren zatiak, berriz, José Lezama Lima poetak ahozko arteari buruz idatzitako testu bat du aipagai.

Edizio honetan, literaturaren eta artearen arteko mugak ezabatu nahi ditugu gara, bai eta bi kontzeptuen artean zubiak eraiki ere. Hasteko, liburu bat adierazpen artistikora zabaldutako prozesutzat hartuko dugu, eta, aldi berean, irudiak testigantza eta dokumentu bezala behatuko. Artea eta literatura / hitza eta irudia, parez pare aritzen dira horrela, elkarren osagarri izan gabe, irakurleak eta ikusleak aldi bereko kontakizunean txertatu nahian.

Jaialdiaren atariko eta luzapen gisa, Azkuna Zentroak [Inoiz ez erreala / Beti egiazkoa](#) aurkeztzen du, Zentroak berak ekoiztiko erakusketa. Iván de la Nuez saiakeragilea, arte-kritikaria eta komisarioa arduradun dela, Gutun Zuriari jorratuko diren kontzeptuetako asko izango dira aztergai erakusketan. Lana egin duten 13 artistek bi munduen artean jarduten dute, eta erabateko naturaltasunez lantzen dituzte biak, artea genero literario modura, eta literatura erakusketa-proiektu gisa.





GUTUN ZURIA DA...

Hitzaldiak / Elkarrizketak / Topaketak / Mahai-inguruak

- 10 **Inaugurazioa: Verónica Gerber Bicecci eta Iván de la Nuezen** arteko elkarrizketa; Irekierako pieza eszenikoa: *Sisyphus Ascending*. Lars Gregersen;
- 11 **Maialen Lujanbio**. Hitzaldia.
- 12 **Cristina de Middel eta Joan Fontcuberta, Agustín Fernández Mallorekin**. Mahai-ingurua: Buruz buru fikzio fotografikoaren inguruan.
- 15 **Harkaitz Cano eta Xabier Gantzarain**. Elkarrizketa.
- 16 **Carlos Fonseca, Juan Vico eta Valérie Mréjen, Julián Rodríguezekin**. Mahai-ingurua: Artea kontatzeko artea.
- 18 **Eric Dicharry, Beatriz Chivite eta Danele Sarrugarte, Beñat Sarasolarekin**. Mahai-ingurua.
- 20 **Bernado Atxaga eta Oskar Alegria**. Elkarrizketa.
- 21 **Christina Rosenvinge, Chico y Chicarekin**. Topaketa.
- 22 **Enrique Vila-Matas eta Alicia Kopf, Iñaki Estebanekin**. Mahai-ingurua: Amildegia esploratzen duten irudiak.
- 24 **Rafael Lechowski**. Kontzertua.

GUTUN ZURIA DA...

Literatur sorkuntza / Edizio independentea / Tailerrak


- 26 *Hitzak suntsitzea ederra da*. Verónica Gerber Bicecci. Tailerra.
- 27 *Nola erakarri ikus-entzule berriak jaialdietara*. Euskadiko Idazleen Elkarte / Asociación de Escritores de Euskadi. Topaketa.
- 28 *Irudiak eta hitzak: bestelako ikuspegiak duen tailerra*. Bilbao FormArte. Tailerra.
- 29 *Hitz Beste*. Euskal Idazleen Elkarte. Topaketa.
- 30 *Argitaletxe independenteekin topaketa. consonni argitaletxea*. Topaketa.

GUTUN ZURIA DA...

Gizartea: Ikusentzunezkoa / Dokumentazio gunea / Irratia / Saloi literarioa / Erakusketaren bisita gidatuak

- 32 Gutun Zuria saloi literarioa
- 33 Dokumentazio gunea
- 34 *Voces en el jardín. Gutun Zuria berezia*. consonni radio Az-rekin. Irrati programa / Podcast.
- 35 *Inoiz ez erreala / Beti egiazkoa* erakusketa. Bisita gidatuak komisarioarekin eta artistekin.
- 38 **GUTUN ZURIA PROGRAMA**







GUTUN ZURIA DA...

Hitzaldiak

Elkarrizketak

Topaketak

Mahai-inguruak

ELKARRIZKETA

Verónica Gerber Bicecci Iván de la Nuezekin

Verónica Gerber Bicecci (Mexiko Hiria, 1981)

Idazten duen artista bisuala. *Mudanza* (2010, Re 2017) eta *Conjunto vacío* (2015) liburuak argitaratu ditu. Bere azken proiektuen artean: *lamaquinadistopica.xyz* (2018, Museo Arte Abstracto Manuel Felguérez, Zacatecas); *Otro día... Poemas sintéticos* (2017, Proxyco Gallery, NY eta MAZ, Guadalajara); eta *Palabras migrantes* (2017, Art Association, Jackson Hole, USA).

Iván de la Nuez (La Habana, 1964)

Saiakeragilea, kritikaria eta komisarioa da. Bere liburuen artean: *La balsa perpetua*, *El mapa de sal*, *Fantasia Roja*, *El comunista manifiesto* eta *Teoría de la retaguardia*. Bere erakusketen artean: *Inoiz ez erreala / Beti egiazkoa*, Azkuna Znetroan ikusgai martxoaren 14tik. Guntun zuriako aholkularia da.

Irekierako pieza eszenikoa: ***Sisyphus Ascending***. Lars Gregersen

////////////////////////////////////

Apirilak 2, asteartea

19:00

Auditorioa

Gaztelania. Aldibereko itzulpena euskeraz eta ingelesez

Sarrera dohainik gonbidapenarekin (jaso Infopuntuan), eserleku guztiak bete arte

////////////////////////////////////

LIBURUEN SINADURA

21:00

Saloi literarioa (Kulturen Ataria)

////////////////////////////////////

 veronicagerberbicecci.net



Gerber Bicecci



De la Nuez

API. 2 (astr.)

HITZALDIA

Maialen Lujanbio

(Hernani, 1976)

Batez ere bertsolari gisa ezaguna bada ere, **Maialen Lujanbio** ekarpen ugari egin ditu, halaber, bertsolaritzaren ertzetan zein haietatik kanpo. Zubi asko eraiki izan ditu bertsolaritza eta beste arte disziplina garaikideen (musika, arte biziak, arte bisualak, fikzioa...) artean, hala diskurtsiboki nola praktika artistikoen bidez (*Ornitorrinkus*, *Txori mugariak*, *Balitzen hioa*). Bada, hain justu, zubi horiek izango dira bere ekitaldiko ardatza, eta bertsolaritzak inguruko arteekin duen harremanaz hausnartuko du Lujanbiok hitzaldi honetan. Askotan praktika isolatu eta aparteko moduan ikusi izan da bertsolaritza, baina ez ote du uste baino harreman handiagoa beste arte batzuekin? Zenbat du, adibidez, poesiatik? Zeintzuk dira haien arteko desberdintasunak? Nola gauzatzen dira diziplina artistikoen arteko hierarkiak?

////////////////////////////////////
Apirilak 2, asteartea

21:00
Auditorioa

Euskara. Aldibereko itzulpena
gaztelaniaz eta ingelesez
3€ / 2€ Az Txartelarekin
Sarrerak: Infopuntua eta
www.azkunazentroa.eus

Lujanbio Arg.: Emakunde Aldizkaria



MAHAI-INGURUA: BURUZ BURU FIKZIO FOTOGRAFIKOAREN INGURUAN

Cristina de Middel eta Joan Fontcuberta Agustín Fernández Mallorekin

De Middel. Arg.: Roberto Villalón



Fontcuberta



Fernández Mallo



Cristina de Middel (Alacant, 1975)

Argazki-kazetaritzan hasi zenez gerotzik, argazkigintzaren arlo guztiak ezagutu izan ditu.

Haren serieak -nola *Los Afronautas*, hala *Pop Totem*, tartean *Party* hartuta- ikusmenaren eleberriak dira, ikonografiaren tratatu txikiak edo errealtatea manipulatzeari buruzko dokumentuak. Espainiako Sari Nazionala irabazia, PhotoEspañako komisarioa edo Magnumeko nominako kide, haren narrazioak arrandiaren aurkako antidotoak dira, dela artean, dela literaturan.

Joan Fontcuberta (Bartzelona, 1955)

Beharbada, argazkilarien artean literaltasuna gutxien eta literariotasuna gehien erabiltzen duena da. Idazle bezala, Espainiako Saiakera Saria irabazia da. Artista moduan, Espainiako Argazkilaritza Saria eta Hasselblad saria (literaturan Nobelaren edo arkitekturan Priktzer sariaren parekotzat jotzen dena) eskuratu izan ditu.

Haren argazki-fikzioak mitologikoak dira dagoeneko: egia osotzat hartu izan dituzte, albiste izan dira eta telebistako saioak eskaini dizkiete; halaxe gertatu zen haren Ivan Istochnikov kosmonauta edo Ximo Berenguer argazkilariarekin.

Agustín Fernández Mallo (Coruña, 1967)

2018 egile honen urtea izan zen. Biblioteca Breve saria irabaziz hasi zuen, *Trilogía de la guerra* eleberriarekin, eta harena bezain asmo handiko saiakera batekin bukatu: *Teoría general de la basura*.

‘Nocilla Belaunaldia’ izenez ezagutu den belaunaldiaren sortzailea eta Espainian literatura hedatuaren egilea izanik, haren idazkera testua eta ikusgai den irudiaren arteko gurutzatze berezkoa da. Zer den ulertu ahal izateko, Robert Smithson eskultorearen, minimalismoaren edo land art-aren aztarnetara jo beharko dugu.

////////////////////////////////////

Apirilak 3, asteazkena

19:30

Auditorioa

Gaztelania. Aldibereko itzulpena euskeraz eta ingelesez

3€ / 2€ Az Txartelarekin
Sarrerak: Infopuntua eta
www.azkunazentroa.eus

////////////////////////////////////

LIBURUEN SINADURA

21:00

Saloi literarioa (Kulturen Ataria)

////////////////////////////////////

Cristina de Middel

 lademiddel.com

Joan Fontcuberta

 fontcuberta.com

Agustín Fernández Mallo

 elhombrequesurgiodelatarta.com

ELKARRIZKETA

Harkaitz Cano eta Xabier Gantzarain

Harkaitz Cano eta **Xabier Gantzarain** adiskide zaharrak dira 90eko hamarkadan beste zenbait kiderekin batera 'Lubaki banda' literatur taldea osatu zutenetik. Ordutik, **Cano** idazle gisa ibilbide oparoa egin du, eta arte garaikideak presentzia nabarmena izan du bere obran. Alabaina, ez da gehiegi nabarmendu alderdi hori eta oraindik aztertzeko dagoen kontu bat da. **Gantzarain** beti mugitu izan da literatur eta artearen arteko mugetan. Arte ikasketak egiteaz gain, ezaguna da portada-diseinatzaile gisa egin izan duen lana (tartean Canoren zenbait libururena). Berriki, euskal arte garaikideari buruzko saiakera interesgarria argitaratu du (Zuloa), non 'Gaur' taldearen ondorengo artea aztertzen duen hainbat obra eta artisten bidez.

Honenbestez, bi autoreok Canoren literaturaren eta arte garaikidearen arteko harremanaren inguruan ez ezik, euskal arte garaikideaz eta liburuen azalgintaz jardungo dira.

////////////////////////////////////
Apirilak 4, osteguna

18:00
Bastida Aretoa

Euskara. Aldibereko itzulpena gaztelaniaz eta ingelesez
3€ / 2€ Az Txartelarekin
Sarrerak: Infopuntua eta www.azkunazentroa.eus

////////////////////////////////////
LIBURUEN SINADURA

19:00
Saloi literarioa (Kulturen Ataria)

////////////////////////////////////
Harkaitz Cano

 harkaitzcano.com

Xabier Gantzarain

 [@gantzarain](https://twitter.com/gantzarain)

Cano



Gantzarain. Arg.: Dani Blanco




MAHAI-INGURUA: ARTEA KONTATZEKO ARTEA

Carlos Fonseca, Juan Vico eta Valérie Mréjen Julián Rodríguezekin

Fonseca



Vico



Mréjen. Arg. Stéphanie Solinas



Rodríguez Arg. Corina Arranz



Carlos Fonseca (San José, Costa Rica, 1987)

Museo animal eta *Coronel Lágrimas* bezalako eleberriekin, literaturaren izen berrietako bat zela baieztatu zuen, zalantzarik gabe. Bere narraziozintzan, konspirazio bat balitz bezala agertzen da artea, non artxiboaren, dokumentuaren edo bildumen balioa errealitatearen ertzeko esparru moduan azaleratzen diren. Gainera, kartografia berezi baten jabe da, Kariberen eta Pirinioen artean, New Yorken eta oihanean zehar sigi-sagan.

Haren liburuak zirkularrak dira, argazkilaritzak, museografiak edo gutun galduak eskaintzen duten memorian oinarrituz eraikitakoak.

Juan Vico (Badalona, 1975)

Poeta, eleberrigilea, editorea. *El teatro de la luz*, *Hobo* edo *El animal más triste* lanetan, arteak edo zinematik haren idazkera tenkatu egiten dute, memoria galdu bat berreraikitze iragate-errituak balira bezala. Iragana arakatu ahal izateko, idaztera iritsi eta orainaldian luze-zabalean hedatzeko nahitaz abiapuntua irudietan egongo balitz bezala. Bateratze horrek bere poesian –*Víspera de ayer*, *Still Life*, *La balada de Molly Sinclair*– eta editore jarduera guztian iraun izan du.

Valérie Mréjen (Paris, 1969)

Haren *Mon grand-père* (*Aitona*) nobela albiste bihurtu zen Frantzian. Aldi berean zakarra eta sofistikatua den testuan, interesgunea gainerakoekin eta haien isilpekoekin harremanetan sartzen garen modua da. Ikertze hori da, hain zuzen, idazle eta artista honen baliabide iraunkorretako bat. Haren filmak Super 8an egindako eleberriak direla esan du Jean-Luc Douinek *Le Monde*-n.

Haren liburuen artean daude *L'Agrume* eta *Eau Sauvage* ere, orobat *Pork and Milk* saiakera/dokumentala

Julián Rodríguez (Ceclavín, Cáceres, 1968)

Sub rosa arte eta estetika aldizkaria editatu eta zuzendu zuen 90. hamarkadako hasieran. Gaur egun 'Casa sin fin' arte-galeriako zuzendari artistikoa da eta baita 'Periférica' argitaletxe literarioko zuzendaria. Bere eleberrien artean nabarmentzen dira *Antecedentes* (2010), *Lo improbable* (2001), *Ninguna necesidad* (2006) eta *La sombra y la penumbra* (2002).

Apirilak 4, osteguna

19:30

Auditorioa

Gaztelania. Aldibereko itzulpena euskeraz eta ingelesez

3€ / 2€ Az Txartelarekin
Sarrerak: Infopuntua eta
www.azkunazentroa.eus

LIBURUEN SINADURA

21:00

Saloi literarioa (Kulturen Ataria)

Carlos Fonseca

 anagrama-ed.es

Juan Vico

 juanvico.com

Valérie Mréjen

 valeriemrjen.com

MAHAI-INGURUA

Eric Dicharry, Beatriz Chivite eta Danele Sarrugarte Beñat Sarasolarekin



Dicharry



Chivite. Arg.: Zoe Marticorena



Sarrugarte. Arg.: Mikel López



Sarasola. Arg.: Maite Arberas

Hiru idazle hauen obretan zein praktketan arte garaikideak garrantzia nabarmena du. Hirurak dira literatura idazle, hirurak berriki samar argitaratzen hasiak, baina bakoitzak leku ezberdinetatik begiratzen dio arteari.

Eric Dicharyk (Baiona 1969) sormena eta ikerketa nahasten ditu maiz, eta bere literatur lan zenbait, poesia bisualitzakoak esaterako, arte garaikidearen barnean ere koka litezke.

Beatriz Chivite (Baiona 1969) arte ikasketak egin ditu halaber, eta interes bereziz begiratu izan du ekialdeko kulturetako arteari. Bere poesia lanak, bada, artearen inguruko hausnarketez eta ekialdeko sentsibilitatez josiak daude.

Danele Sarriugarteren (Elgoibar, 1989) kasuan, arte munduan kokatzen du arreta bere azkeneko nobelan (Azala erre); hau da, arte munduko botere-harreman, arrakasta-porrot erlazio eta irudi publikoa bezalako gaietan.

Beñat Sarasola (Donostia-San Sebastián, 1984) idazle eta ikertzailea, Gutun Zuriaren aholkularia da ere. Idazle gisa, bi poema-liburu ditu argitaraturik, *Kaxa huts bat* eta *Alea*, eta lehen eleberria argitaratu berri du, *Deklaratzekorik* ez. Editore-lanetan, munduko poesia modernorik onena euskarara itzultzen duen Susa argitaletxeko Munduko Poesia Kaiarak bilduma zuzentzen du.

Mahai-inguru honek, beraz, euskal idazle zenbait arte garaikidera nola hurbiltzen diren ezagutzeko parada emango digu: nola lotzen dira literatura eta artea? Nola literaturaren instituzioa eta artearena? Zeintzuk dira bien arteko mugak?

////////////////////////////////////

Apirilak 5, ostirala

18:00

Bastida Aretoa

Euskara. Aldibereko itzulpena gaztelaniaz eta ingelesez

3€ / 2€ Az Txartelarekin

Sarrerak: Infopuntua eta

www.azkunazentroa.eus

////////////////////////////////////

LIBURUEN SINADURA

19:00

Saloi literarioa (Kulturen Ataria)

////////////////////////////////////

Carlos Fonseca

 anagrama-ed.es

Juan Vico

 juanvico.com

Valérie Mréjen

 valeriemrejen.com

Beñat Sarasola

 [@bsarasola](https://twitter.com/bsarasola)

ELKARRIZKETA

Bernado Atxaga eta Oskar Alegria

Bernardo Atxaga (Asteasu, 1951)

Joseba Irazu Garmendia. Ekonomia Zientzietan lizentziatu zen Bilboko Unibertsitatean, eta hainbat lanbidetan aritu izan zen (euskara irakaslea, liburu-saltzailea, ekonomialaria, etab.), harik eta, azkenik, laurogeiko hamarkadaren hasiera aldera, literaturari bete-betean ekin zion arte. Argitaratu ditu, beste hainbaten artean: *Bi anai* (1985), *Obabakoak* (1988, Euskadi Saria, Espainiako Premio Nacional de Narrativa), *Gizona bere bakardadean* (1993), *Zeru horiek* (1995), *Soinujolearen semea* (2003), *Zazpi etxe Frantzia* (2009) eta *Nevadako egunak* (2013). Bere obra, 32 hizkuntzatan irakur daiteke.

Oskar Alegria (Pamplona, 1973)

Kazetaritza ikasketak egin eta El Pais egunkariaren *El Viajero* gehigarriko hainbat bidai erreportai idatzi zituen. Enrique Vila-Matasek oniritziarekin, *Hiri ikustezinak* izeneko argazkilaritza egitasmo artistikoa osatu zuen. Bere lehenbiziko luzemetraia, *Emak Bakia baita*, munduko osoko dozenaka jaialditan erakutsi izan da, 15 sari jaso ditu eta 13 hizkuntzetan itzulia izan da.

////////////////////////////////////
Apirilak 5, ostirala

19:30
Auditorio

Euskara. Aldibereko itzulpena gaztelaniaz eta ingelesez
3€ / 2€ Az Txartelarekin
Sarrerak: Infopuntua eta
www.azkunazentroa.eus

////////////////////////////////////
LIBURUEN SINADURA

21:00
Saloi literarioa (Kulturen Ataria)

////////////////////////////////////
Bernardo Atxaga

 atxaga.eus

Oskar Alegria

 oskaralegria.com

Atxaga. Arg.: Jone Irazu



Alegria. Arg.: Patxi Uriz



TOPAKETA

Christina Roseninge

Chico y Chicarekin

(Madril, 1964)

Bere *Debut* lanean, kantuz beteriko 25 urte baino gehiago jaso, eta bere letren azpian dauden tokiak, kontakizunak eta hausnarketak bildu ditu. Bere ibilbide osoko letrak bildu, eta une bakoitzean alboan izan dituen koadernoak birsortu ditu. Kantautorearen lanean eragina izan duten aipu literarioek, musikalek eta artistikoez liburu osoa zeharkatzen dute; eta, amaiera gisa, *La palabra exacta dago*, kantuak idazteko artea ikertzen duen saiakera, hitza eta melodia kantatutako bertsoan josteko sekretuei buruzko hausnarketa.

Chico y Chica (Bilbo, 1996)

Chico y Chica Jose Luis Rebollok eta Alicia San Juanek Bilbon sortutako bikote musikala da. Pop independentea eta electro pop estiloak jorratzen dituzte. Haien diskoak dantzara bideratuta daude batik bat, hitz azido, jostagarri eta ironikoez, eta errepika itsaskorrekin. Euren azken lana *Un, dos, tres, orgasmo* izan da (Austrohúngaro, 2017).

////////////////////////////////////
Apirilak 5, ostirala

21:00

Kulturen Ataria (igerilekuko argizariaren azpian)

Gaztelania. Aldibereko itzulpenik gabe

3€ / 2€ Az Txartelarekin
Sarrerak: Infopuntua eta
www.azkunazentroa.eus

////////////////////////////////////
LIBURUEN SINADURA

19:00

Saloi literarioa (Kulturen Ataria)

////////////////////////////////////
 @Ch_Roseninge

 christinaroseningeoficial

Roseninge Arg. Pablo Zamora



Chico y Chica



MAHAI-INGURUA: AMILDEGIA ESPLORATZEN DUTEN IRUDIAK

Enrique Vila-Matas eta Alicia Kopf Iñaki Estebanekin



Vila-Matas



Kopf



Esteban

Enrique Vila-Matas (Barcelona, 1948)

Me dicen que diga mi nombre ipuinaren eta Londresko Whitechapel Galleryn orain gutxi komisario bezala egin duen *Una novela oblicua* erakusketaren artean, bitartean *Kassel no invita a la lógica* ere kontuan hartuta, konpartimentu bakarrean edo sailkapen eskusibito batean bizitzeari beti uko egin izan dion obra 'eraikitze'ko elementutzat erabili izan du artea.

Blanchotek bezala, idazleak artistak direla uste du Vila-Matasek; aldi berean, gai da sei artelan hartu, eta, haietatik abiatuta, bere autobiografia berreraikitze. Zaila da artearen eta literaturaren arteko mugak hain era erradikalean eta, nolabait esateko, berezkoan ezabatu dituen beste idazlerik aurkitzea.

Alicia Kopf (Girona, 1982)

Artean zehar ibiliz aurrerantz jo, nola poloan dabilen ibiltaria, bizitzan barneratzen den ibiltaria bailitz, hitzean edo irudian erantzun baten bila, amildegi ertzera doan haren gisa berean. Marraztu egiten du, nola literaturan eroso ez dagoen idazkera, hala Artearen sisteman gune erosoan pausatzen ez den artea.

Horixe lortu du Alicia Kopfek *El hermano de hielo* (*Anaia izotzekoa*) lehen eleberriarekin, bai eta aldi berean barnekoa nahiz kanpoko, hurbilekoa eta izugarria den espedizio horretatik eratorritako *Conquest drawings* (*Konkista marrazkiak*) seriean ere.

Iñaki Esteban (Amurrio, 1961)

Gutun Zuriko aholkularia da lehenengo ediziotik. *El efecto Guggenheim* eta *Libertad y sentido en las sociedades democráticas* lanen egilea da, Miguel de Unamuno Saria. Bestalde, *Diccionario de la existencia* lanean parte hartu du, nazioarteko filosofo gailen batzuekin batera. Bilboko El Correo ko kazetaria da, eskolak ematen ditu egunkariaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen *Kazetaritza* masterretan, eta lankidetzan aritzen da zenbait irratsaiotan eta kultura-arloko argitalpenetan. 2002an Kataluniako Editoreen Gremioak urteko artikulugilerik onenari eskainitako Atlántida saria eman zion. Bidebarrieta Kulturguneko 'Café Voltaire' elkarrizketa foroaren antolatzailea da.

////////////////////////////////////

Apirilak 6, larunbata

19:30

Auditorioa

Gaztelania. Aldibereko itzulpena euskeraz eta ingelesez

3€ / 2€ Az Txartelarekin
Sarrerak: Infopuntua eta
www.azkunazentroa.eus

////////////////////////////////////

LIBURUEN SINADURA

21:00

Saloi literarioa (Kulturen Ataria)

////////////////////////////////////

Enrique Vila-Matas

 enriquevilamatas.com

Alicia Kopf

 [@aliciakopf](https://twitter.com/aliciakopf)

Iñaki Esteban

 [@inakiesteban](https://twitter.com/inakiesteban)

KONTZERTUA

Rafael Lechowski

(Wroclaw, 1985)

Gero eta zailagoa da Rafael Lechowskiren estiloa definitzea –hibrido bitxi bat, poesia, jazz, rapa eta slam-a uztartzen dituena–, baina, hala ere, haren generoan, hizkuntza hispanoko letristik garrantzitsuenetakotzat hartzen da: haren ahotsak gero eta oihartzun ozenagoa du, eta eragin nabarmena du, hala Espainian nola Latinoamerikan. Hamazazpi urte baizik ez zuen debuta egin zuenean, 2004an, eta El País egunkariak 'Arte nazionalako esperantza gaztea' zela esan zuen. Kritikarik ere laudorio ugari egin zizkieten, 2017an Europako egilerik onenen artean sartu baitzuten *Donde duele*, inspira lana zela-eta. 2014an, *Larga brevedad* eman zuen argitara, ondoz ondoko 18 astez genero guztietako zerrenda nazionaletan gehien saldutako liburuen artean egon zen lana. 2015ean, Espainiako ordezkaria izan zen Medellíngo Poesiako Nazioarteko Jaialdian, eta, gaur egun, lankidetzan aritzen da Nuevas Voces del Movimiento Poético Mundial mugimenduarekin (World Poetry Movement).



Apirilak 6, larunbata

21:00

Kulturen Ataria (igerilekuko argizariaren azpian)

Gaztelania. Aldibereko itzulpenik gabe




12€ / 10€ Az Txartelarekin
Sarrerak: Infopuntua eta
www.azkunazentroa.eus




 rlechowski.com



Lechowski



GUTUN ZURIA DA...
Literatur sorkuntza
Edizio independentea
Tailerrak



TAILERRA

Hitzak suntsitzea ederra da

(*La destrucción de las palabras es algo hermoso*)

Irakaslea: **Verónica Gerber Bicecci**

«Hizkuntza bat irudikatzea bizitzeko modu bat irudikatzea baldin bada», eta «hitz berri bat eztabaidaren lurrera botatako hazi fresko baten modukoa bada» –Walter Benjaminek esan zuenez–, orduan, agian, bada garaia araudi akademiko eta hizkuntzaren malgutasun naturaletik harantz jotzeko, eta haren mugak eta formatuak eraldatzen saiatzeko. Literatura futuristaren manifestuak eta George Orwellen *Los principios de la neolengua* izango dira abiaburua, beste leku batetik idazteko eta irudiak egiteko bide emango diguten sintaxi alternoak irudikatzeke eta haietaz eztabaidatzeko. «Beste mota bateko istorioak behar ditugu», proposatzen du Donna Harawayk, eta, «orain horretarako hitzik ez badugu ere», ahalegina egingo dugu haien zirriborroa egiten, beste idazketa bat erabiliz, etorkizunean, eta gure oraina den distopia honetan, izango ditugun era askotako krisialdiez (ekologikoaz, sozialaz, politikoz, ekonomikoaz, teknologikoaz) gogoeta egiteko eta haiei aurre egin ahal izateko.

Tailer honen irakasle dugu **Verónica Gerber Bicecci**, idazle eta artista mexikarra. Bicecick Gutun Zuria inauguratzen du Iván de la Nuez-ekin –saiakeragile, kritikari eta komisario kubatarra– batera.

////////////////////////////////////

Apiak 2 eta 3
Asteartea eta asteazkena

9:30 - 13:00

Lantegia 2

Gaztelania

12€ / 10€ Az Txartelarekin

Sarrerak: Infopuntua eta

www.azkunazentroa.eus

////////////////////////////////////

Nahitaezko irakurgaiak:

Filippo Tommaso Marinetti:
Manifiesto técnico de la literatura futurista (1912),
Suplemento al manifiesto técnico de la literatura futurista (1912) eta *Las palabras en libertad* (1913).

George Orwell:

Los principios de la neolengua
(1984 eleberrian) (1948)

////////////////////////////////////

 veronicagerberbicecci.net




Fig. 26. Text No. 26 (August 21, 1898), which appeared in visual hallucination, and was copied by Mlle. Smith. Reproductions in autotype.

TOPAKETA

Nola erakarri ikus-entzule berriak jaialdietara

Antolatzailea: **Euskadiko Idazleen Elkarte** / **Asociación de Escritores de Euskadi**

Asociación de Escritores de Euskadi / Euskadiko Idazleen Elkarteak gogotsu egin du bat Gutun Zuriarekin, eta mahai/tailer bat antolatu du, *Cómo atraer nuevos públicos a los festivales literarios (Nola erakarri ikus-entzule berriak literatura-jaialdiétara)* izenburupean. Hor, literatura-jaialdiétako hiru zuzendari ospetsu jardungo dira, Estatuan eta nazioartean izan dituzten esperientziak partekatzen, eta musikari, arkitekturari, zinemari... espazio berriak nola zabaldu eta literaturarekin nola bateratu aztertuko dute, kulturaren onerako aukerak hedatzeko.

Asociación de Escritores de Euskadi / Euskadiko Idazleen Elkarte (AEE/EIE) Euskal Autonomia Erkidegoan jaio edo bizi diren idazleak bateratzen ditu. Ahaleginak eta ezagutzak batzeaz gain, elkarlanean jardun nahi dute, beren lanak argitaratzeko, sustatzeko eta garatzeko zereginari ekiterakoan.

Parte-hartzaileak: Sheila Cremaschi, Segoviako 'Hay Festival of Literature and the Arts' jaialdiko zuzendaria; Luis Posada, Madril eta Malagako 'Eñe' jaialdiko zuzendaria; Ricard Robles, Bartzelonako 'Sonar' jaialdiko zuzendaria; eta María Eugenia Salaverri, AEE/EIEko zuzendaria, moderatzaile gisa.

////////////////////////////////////
Apirilak 3, asteazkena

10:00 - 13:00

Bastida Aretoa

Gaztelania

Sarrera dohainik leku guztiak bete arte

////////////////////////////////////
 escritoresdeuskadi.com



TAILERRA

Irudiak eta hitzak: bestelako ikuspegia duen tailerra

Antolatzailea: **Bilbao FormArte**

Apirilaren 4ean eta 5ean, sorkuntza artistikoko tailer bat egongo da Az-n, dibertsitate funtzionala duten pertsonen zuzenduta, arte plastikoaren bidez garapen pertsonala lantzen duen ekimen sozialeko **FormArte** kooperatibarekin elkarlanean.

Martin Abrisketaren lana oinarritzat hartuta, parte-hartzaileek pieza artistiko bat sortuko dute, teknika desberdinak erabiliz, eta pertsona bakoitzaren beharrezanetara egokitutako esperientziak eginez. Tailerraren emaitza erakusketa batean jarriko da ikusgai Mediatekan, apirilaren 6an.

////////////////////

TAILERRA

Apirilak 3 eta 4

Asteazkena eta osteguna

17:00 - 19:15

Mediateka. Medialab 2

Gaztelania

Izen-emate itxia

////////////////////

ERAKUSKETA

Apirilak 4 > 6

Osteguna > Larunbata

11:00 - 21:00

Mediateka. Medialab 2

Sarrera dohainik



API. 4 (ostg.)

TOPAKETA

Hitz Beste

Antolatzailea: **Euskal Idazleen Elkarte**

Euskal Idazleen Elkarteak *Hitz Beste* topaketa kudeatzen du apirilaren 4an. Hitzarekin baliatuz edo hitzak erabiliaz hamaika espresio mota daude. Artearekin, filosofiarekin, antzerkiarekin edo grafikarekin hitzak duen lotura aztertuko dugu. Horretarako diziplina ezberdinak jarriko ditugu parez pare eta elkarrizketan.

Euskal Idazleen Elkarte 1982an sortutako irabazi asmorik gabeko elkarte da, euskal idazleen eskubide profesional eta moralak defenditzeko asmoz egituratua. 350etik gora bazkide ditu gaur egun, eta horrez gain, beste hauek ere badira bere xedeak: euskal literatura zabaltzea Euskal Herrian nahiz atzerrian, idazlearen lanaren proiektzio soziala bideratzea eta euskalgintzaren eragile aktiboa izatea.

////////////////////////////////////
Apirilak 4, osteguna

10:00 - 13:00

Lantegia 2

Euskara

Sarrera dohainik leku guztiak bete arte

////////////////////////////////////
 idazleak.eus



TOPAKETA

Argitaletxe independenteekin topaketa

Antolatzailea: **consonni editoriala**

Argitaletxe independenteak engaiatzeko asmoz, Az-ko kolektibo egoiliarra den **consonni argitaletxeak** argitaletxe independenteekin topaketa koordinatuko du, eta, hor, besteak beste, dauden arazoez, ezaugarriez, desberdintasunez eta desirez hitz egiteaz gain, bidea eman nahi dute guztiok erabiltzeko moduko estrategiak prestatzeko. Bide batez, formulak aztertuko dituzte, Gutun Zuria jaialdiaren hurrengo egunetan argitaletxe independenteak engaitzaileak daitezela.

Beren berezitasunekin erreferenteak diren argitaletxeak ditugu; beraz, topaketan, guztiok partekatzen dituzten proiektuez gain, desberdintasunak ere landuko dira. **Pepitas de Calabaza** (Logroño), **Hoja de Lata** (Xixón), **Rayo Verde** (Bartzelona), **Periférica** (Madril), **Sans Soleil** (Gasteiz), **Capitán Swing** (Madril), **Arcadia** (Bartzelona), **Errata Naturae** (Madril), **Astiberri** (Bilbo), **Katakarak/Txalaparta** (Iruñea), **Chan da Polvora** (Santiago de Compostela), **Continta me tienes** (Madril) y **consonni** (Bilbo).

Ostiralean, arratsaldean, Alicia San Juan artista eta kazetariak gidatutako *Voces en el jardín* programan, tarte bat izango da, jaialdian parte hartzen duten editoreei elkarrizketa egiteko.

////////////////////////////////////

Apirilak 3 > 5
Osteguna > Ostirala
9:30 - 13:00
Lantegia 2
Gaztelania
Izen-emate itxia

////////////////////////////////////

 consonni.org





GUTUN ZURIA DA...

Gizartea:

Ikusentzunezkoa

Dokumentazio
gunea

Irratia

Saloi literarioa

Erakusketaren
bisita gidatuak

Gutun Zuria saloi literarioa

Liburuen sinadura, gune bibliografikoa, liburuen salmenta eta Gutun Zuria TB gunea

Kulturen Atarian kokatuta dagoen [saloi literarioa](#) Jaialdiko protagonistekin topo egiteko lekua bihurtzen da. Gune hori, non elkarrizketa, hitzaldi edo solasaldi bakoitzaren ondoren liburuak sinatuko diren, aldi berean bada Jaialdiko gaiarekin lotutako argitalpenak kontsultatzeko gune bibliografikoa, liburuak saltzeko gunea eta bai Gutun Zuria TB ikusteko gunea ere.

Anti-, Louise Michel Liburuak eta Binarío liburutegiak ere areto horretan bertan izango dira, Gutun Zuriko programazioarekin lotutako euren katalogoko hautaketa batekin.

////////////////////////////////////

Apirilak 2 > 6
Asteartea > Larunbata
12:00 - 14:00
17:00 - 22:00
Kulturen Ataria
Sarrera dohainik

Liburuen sinadura:

Apirilak 2, asteartea

21:00

[Verónica Gerber Bicecci](#)
[Iván de la Nuez](#)

Apirilak 3, asteazkena

21:00

[Cristina de Middel](#)
[Joan Fontcuberta](#)
[Agustín Fernández Mallo](#)

Apirilak 4, osteguna

19:00

[Harkaitz Cano](#)
[Xabier Gantzarain](#)

21:00

[Carlos Fonseca](#)
[Juan Vico](#)
[Valérie Mréjen](#)

Apirilak 5, ostirala

19:00

[Eric Dicharry](#)
[Beatriz Chivite](#)
[Danele Sarriugarte](#)
[Beñat Sarasola](#)
[Christina Rosenvinge](#)

21:00

[Bernardo Atxaga](#)
[Oskar Alegria](#)

Apirilak 6, larunbata

21:00

[Enrique Vila-Matas](#)
[Alicia Kopf](#)

Dokumentazio gunea

Mediatekako lehenengo solairuan Gutun Zuriko dokumentazio gunea dago, *Inoiz ez erreala / Beti egjazkoa* erakusketarekin elkarrizketa osatuz. Erakusketak literatura artearen ikuspegitik jorratzen duen bitartean, Jaialdia alderantzizko bidean dabil, artea literaturan txertatuz.

Literatura aretoko gune bibliografikoaren osagarritzat leku honetan eskuragarri izango diren Jaialdiko gaiarekin lotutako argitalpenez gain, Gonzalo Elviraren *Lo imborrable* artelaneko bi pieza daude Mediateka erakusketa aretoarekin konektatzen.

////////////////////////////////////
Apirilak 2 > 6
Asteartea > Larunbata
9:00 - 21:00
Mediateka. 1. solairua
Sarrera dohainik



IRRATI PROGRAMA / PODCAST

Voces en el jardín. Gutun Zuria Berezia

consonni radio Az-rekin

consonni radio Az-rekin irratiak Alicia San Juanek gidatuatako *Voces en el jardín. Gutun Zuria berezia* programa aurkezten du, Gutun Zuria, Bilboko letren nazioarteko jaialdiaren barruan. Irrati programa hau consonnik kolektibo egoilar bezala asmatutako programetako bat da.

Saio honetan Jaialdiko protagonistek hitz egingo dute beraien iritziak eta hausnarketak partekatzeko. Ahotsak hitz egiten, laztantzen, eztabaidatzen, erantzuten, bat ez etortzen. Ahotsak kultura kritikoz beteriko lorategi batean.

////////////////////////////////////

Apirilak 3 > 5
Asteazkena > Ostirala

Apirilak 3, asteazkena
18:00 - 19:00

Apirilak 4, osteguna
18:00 - 19:00

Apirilak 5, ostirala
17:00 - 19:00

consonni radio estudioa
(Kulturen Ataria)
Sarrera dohainik

Entzuteak eta podcast-ak:
azkunazentroa.eus

////////////////////////////////////

 consonni.org



Inoiz ez erreala / Beti egiazkoa erakusketa

Bisita gidatuak komisarioarekin eta artistekin

Inoiz ez erreala / beti egiazkoa erakusketaren bisita, Iván de la Nuez komisarioaren eta erakusketan parte hartu duten artista batzuen eskutik.

Azken hamarkadetan artearen inplosioa egon da literaturan, eta, era berean, aurkako norabideko bidaia ere egon da, hau da, narratiba artearen erdigunean kokatu da, eta hor aurrera egiteko eta berritzeko alorra aurkitu du.

Gutun Zuriarekin, Bilboko Letren Nazioarteko Jaialdiarekin harremanetan jarrita, erakusketa hau liburuen liburua da, eta bertako hamahiru istorioak begien bistan eta denbora errealean gertatzen dira. Testua testura, hitza irudi, idazketa display eta ahozko erakusketa erakusketa bisual bihurtzeko prozesu kolektibo bat

////////////////////////////////////
Apirilak 3 > 6
Asteazkena > Larunbata

12:30 - 13:30

Erakusketa Aretoa





Informazioa: Infopuntua eta
azkunazentroa.eus

////////////////////////////////////
Erakusketa aretoko ordutegi
berezia:

Apirilak 2 > 6
Asteartea > Larunbata

11:00- 22:00





The image features a complex abstract composition. At the top, a large, irregular shape is filled with a halftone dot pattern. Below this, a solid blue rectangle is positioned on the right side, containing the text 'GUTUN ZURIA PROGRAMA' in white, bold, sans-serif capital letters. To the left of the blue rectangle, several black circles of varying sizes are scattered on a white background. In the bottom left corner, there is a large, solid black silhouette of a stylized shape, possibly a letter or a graphic element. The bottom right corner shows a dark, curved shape, possibly representing a shadow or a page edge. The overall aesthetic is modern and graphic.

**GUTUN ZURIA
PROGRAMA**

APIRILA

LANTEGIA 2

BASTIDA ARETOA

02

/ Asteartea

9:30 - 13:00

TAILERRA

**Hitzak suntzitzea
ederra da**

**Verónica Gerber
Bicecci**

03

/ Asteazkena

10:00 - 13:00

TOPAKETA

**Euskadiko Idazleen Elkarte / Asociación
de Escritores de Euskadi**

[26. or.]

[27 or.]

04

/ Osteguna

9:30 - 13:00

TOPAKETA

**Argitaletxe
independentek
consonni**

10:00 - 13:00

TOPAKETA

**Euskal Idazleen
Elkarte**

[29. or.]

18:00

ELKARRIZKETA

**Xabier Gantzarain
eta Harkaitz Cano**

[15. or.]

05

/ Ostirala

18:00

MAHAI-INGURUA

**Eric Dicharry, Beatriz Chivite eta Danele
Sarriugarte
Beñat Sarasolarekin**

[30. or.]

[18. or.]

06

/ Larunbata

KULTUREN ATARIA

[32. or.]

EGUNERO

Saloi literarioa

**Liburuen sinadura // Gune ibliografikoa // Liburuen salmenta // Gutun
Zuria TV**

INAUGURAZIOA

19:00

IKUSKIZUNA

Lars Gregersen*Sisyphus Ascending*

ELKARRIZKETA

Verónica Gerber Bicecci**Iván de la Nuezekin** [10. or.]

21:00

HITZALDIA

Maialen Lujanbio [11. or.]

17:00 - 19:15

TAILERRA

Irudiak eta hitzak: bestelako ikuspegia duen tailerra**Bilbao****FormArte**

[28. or.]

11:00 - 21:00

TAILERRAREN

ERAKUSKETA

Bilbao**FormArte**

[28. or.]

19:30

[12. or.]

MAHAI-INGURUA

Cristina de Middel eta Joan Fontcuberta Agustín Fernández Mallorékin

19:30

[16. or.]

MAHAI-INGURUA

Carlos Fonseca, Juan Vico eta Valérie Mréjen Julián Rodríguezekin

19:30

ELKARRIZKETA

Bernardo Atxaga eta Oskar Alegria

[20. or.]

19:30

MAHAI-INGURUA

Enrique Vila-Matas eta Alicia Kopf Iñaki Estebanekin

[22. or.]

18:00 - 19:00

IRRATIA

Voces en el jardín

Gutun Zuria

Berezia

consonni

[34. or.]

18:00 - 19:00

IRRATIA

Voces en el jardín

Gutun Zuria

Berezia

consonni

[34. or.]

17:00 - 19:00

IRRATIA

Voces en el jardín

Gutun Zuria

Berezia

consonni

[34. or.]

21:00

TOPAKETA

Christina Rosenvinge Alicia San Juanekin [21. or.]

21:00

KONTZERTUA

Rafael Lechowski

[24. or.]

MEDIATEKA

[33. or.]

9:00 - 21:00

Dokumentazio gunea

ERAKUSKETA ARETOA

[35. or.]

12:30 - 13:30

Bisita gidatua komisarioarekin eta artistekin (apirilak 2 izan ezik)

Inoiz ez erreala / Beti egiazkoa